

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

967

EBAZPENA, 2022ko otsailaren 14koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, zeinaren bidez jakinarazten baita IVAPek antolatutako ikastaroen balioztapena, Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioen lehiaketan baremo orokorrean sartzeko.

AURREKARIAK

Lehenengoa.– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen araubide juridikoari buruzko 16/1983 Legeak xedatutakoarekin bat, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen egitura eta egitekoak arautzen dituen maiatzaren 4ko 133/2021 Dekretuak bi xede hauek ezartzen dizkio IVAPi, besteak beste: batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoekiko lankidetzan aritzea hango langileak prestatzeko eta, bestetik, Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioko langileak hautatzea nahiz prestatzea Euskal Autonomia Erkidegoan.

Esleituriko xedeak betetzeko, IVAPek hainbat prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaro garatu eta burutzen ditu.

Bigarrena.– Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren IV kapituluak aurreikusten du eskala horretan hutsik dauden lanpostuak merezimenduen lehiaketaren bidez betetzea. Lehiaketa horretan balioetsiko dira gairatutako edo emandako prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroak, homologatuak edo aitortuak, Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioak zehaztutako baldintzetan.

Hirugarrena.– IVAPek 2021eko uztailaren 1etik abenduaren 31ra bitartean antolatu zituen ikastaroen balioztapena zehaztu zuen, estatu-mailako gaitasuna duten toki-administrazioko funtzionarioen hautapen-eta betetze-prozesu horien baremo orokorrean jaso ahal izateko. Balioztapen hori jakinarazten da ebazpen honen bidez, jende guztia jakitun egon dadin.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen araubide juridikoa arautzen duen 16/1983 Legeak IVAPen xedeen artean hartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko funtzionarioen eta lan-kontratatuaren prestakuntza eta hobekuntza, baita beste edozein administrazio publikok edo ordenamendu juridikoak agindu diezaioketena ere.

Bigarrena.– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen egitura eta egitekoak arautzen dituen maiatzaren 4ko 133/2021 Dekretuak IVAPi ezartzen dio xede, besteak beste, Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioko langileak hautatu eta prestatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko langileak prestatzea eta EAeko gainerako administrazio publikoekin lankidetzan aritzea hango langileak prestatzeko.

Hirugarrena.– Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak, 32.1 artikuluan, aurreikusten du prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroak baloratzea, eskalari dagozkion hautapen- eta betetze-prozesuetan.

Laugarrena.– otsailaren 16ko TFP/153/2021 Aginduak Estaturako gaikuntza duten toki-administratioko funtzionarioen merezimendu orokorren balorazioa arautzen du, eta honako hau ezartzen du 2.5 a artikuluan: gainditutako edo emandako ikastaroak aintzatesteko eta baloratzeko irizpideak Administrazio Publikoaren Institutu Nazionalak (INAP) ezarriko ditu, autonomia-erkidegoekin eta, hala badagokio, prestakuntza-zentroekin bat etorritik. Kontuan hartuko dira ikastaroaren gaiaren eta gaikuntza nazionala duten toki-administratioko funtzionarioen eskalarako erreserbatutako eginkizunen arteko erlazioa, zailtasun-maila, irakastordu kopurua eta ebaluazio-sistema.

Hori dela eta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– IVAPEk 2021eko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era bitarteko epean antolatutako ikastaroen balioztapena jakinaraztea, Estaturako gaitasuna duten toki-administratioko funtzionarioen lehiaketen baremo orokorrean sartzeko. Balioztapena ebazpen honen eranskinean adierazten da.

Bigarrena.– Ikastaroen zerrenda ere baliozkoa izango da irakasle eginkizuna baloratzeko otsailaren 16ko TFP/153/2021 Aginduan ezarritakoaren arabera. Agindu horren bidez, Estaturako gaikuntza duten toki-administratioko funtzionarioen merezimendu orokorren balorazioa arautzen da.

Ebazpen honek honako ebazpen hauek osatzen ditu:

- 2021eko urriaren 19ko Ebazpena (2021-11-04ko EHAA, 219. zk.).
- 2021eko otsailaren 8ko Ebazpena (2021-02-26ko EHAA, 42. zk.).
- 2020ko urriaren 22ko Ebazpena (2020-10-28ko EHAA, 213. zk.).
- 2020ko apirilaren 21eko Ebazpena (2020-04-30eko EHAA, 81. zk.).
- 2019ko otsailaren 11ko Ebazpena (2019-02-19ko EHAA, 35. zk.).
- 2018ko irailaren 12ko Ebazpena (2018-09-21eko EHAA, 183. zk.).
- 2018ko martxoaren 15eko Ebazpena (2018-03-21eko EHAA, 57. zk.).
- 2018ko urriaren 4ko Ebazpena (2017-10-10eko EHAA, 194. zk.).
- 2017ko otsailaren 16ko Ebazpena (2017-02-28ko EHAA, 41. zk.).
- 2016ko irailaren 19ko Ebazpena (2016-10-21eko EHAA, 200. zk.).
- 2016ko martxoaren 11ko Ebazpena (2016-03-22ko EHAA, 56. zk.).
- 2015eko urriaren 21eko Ebazpena (2015-10-28ko EHAA, 205. zk.).
- 2014ko urriaren 28ko Ebazpena (2014-12-11ko EHAA, 236. zk.).
- 2013ko irailaren 19ko Ebazpena (2013-10-03ko EHAA, 189. zk.).
- 2013ko apirilaren 25eko Ebazpena (2013-05-13ko EHAA, 90. zk.).
- 2013ko martxoaren 25eko Ebazpena (2013-04-19ko EHAA, 75. zk.).
- 2013ko martxoaren 1eko Ebazpena (2013-03-15eko EHAA, 53. zk.).
- 2011ko irailaren 19ko Ebazpena (2011-10-11ko EHAA, 194. zk.).

- 2011ko otsailaren 11ko Ebazpena (2011-03-09ko EHAA, 47. zk.).
- 2010eko uztailaren 8ko Ebazpena (2010-08-02ko EHAA, 147. zk.).
- 2010eko urtarrilaren 28ko Ebazpena (2010-02-18ko EHAA, 33. zk.).
- 2009ko uztailaren 10eko Ebazpena (2009-07-28ko EHAA, 143. zk.).
- 2009ko urtarrilaren 15eko Ebazpena (2009-02-02ko EHAA, 22. zk.).
- 2008ko uztailaren 15eko Ebazpena (2008-08-06ko EHAA, 148. zk.).
- 2007ko urriaren 10eko Ebazpena (2007-11-05eko EHAA, 212. zk.).

Ebazpen horiek guztiek indarrean jarraituko dute.

ERREKURTSOAK

Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari. Errekurtsua jartzeko epea hilabetekoa izango da, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hala ezartzen baitu Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 121. artikuluan. Errekurtsuari ez bazaio ebazpen adierazirik ematen, ezetsizat joko da.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko otsailaren 14a.

Herri Ardularitzaren Euskal Erakundearen zuzendaria,
MAITE BARRUETABEÑA ZENEKORTA.

2022ko otsailaren 25a, ostirala

ERANSKINA

Zk.	Data	Ikastaroa	Puntuazioa
1	04-10-2021	20 aholku hizkera juridiko-administratiboa hobetzeko	0,4
2	02-11-2021	2030 agenda eta garapen jasangarriko helburuak: gure politika publikoak hobetzeko tresna	0,3
3	04-10-2021	Abusos sexuales a niñas, niños y adolescentes: curso básico	0,4
4	23-11-2021	Administración electrónica	0,3
5	18-10-2021	Administrazio hizkera 2.0 on line	0,5
6	18-10-2021	Administrazio hizkera 3.0 on line	0,5
7	04-10-2021	Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39-2015 Legea	0,5
8	04-10-2021	Administrazioen esku dauden datuak eta agiriak ez aurkezteko eskubidea (apelen 28.art.)	0,5
9	02-11-2021	Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39-2015 Legea	0,5
10	04-10-2021	Adobe Indesign	0,3
11	18-10-2021	Ahozko jarduna nola hobetu azterketetatik harantzago	0,3
12	16-09-2021	Amianto e inventarios municipales	0,3
13	16-09-2021	Amianto e inventarios municipales	0,3
14	16-09-2021	Amianto e inventarios municipales	0,3
15	24-11-2021	Análisis de puestos de trabajo y herramienta de evaluación de desempeño	0,3
16	07-10-2021	Asertividad y gestión emocional: claves para una comunicación inteligente	0,4
17	08-10-2021	Ayuntamientos vascos 2030: desarrollo sostenible, recuperación y transformación	0,9
18	01-10-2021	Bilera-akta, iragarkia eta txostena	0,3
19	20-05-2021	Buenas prácticas para la eficacia de procesos selectivos	0,4
20	06-09-2021	Claves en administración electrónica	0,5
21	01-10-2021	Cómo escribir para la Web	0,3
22	02-11-2021	Culturas organizativas que transforman: cuando el aprendizaje, las ideas y el conocimiento se alían	0,5
23	03-11-2021	Curso básico de urbanismo en la CAPV	0,6
24	04-10-2021	Curso de comprensión jurídica de la e-administración: Normas técnicas de interoperabilidad	0,5
25	26-10-2021	Curso superior de urbanismo: la acción urbanística en 2021	0,5
26	20-10-2021	El régimen jurídico del procedimiento electrónico	0,5
27	04-10-2021	Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko oinarriko prestakuntza	0,3
28	01-10-2021	Entornos de trabajo positivos. Cuando el clima se convierte en oportunidad	0,3
29	04-10-2021	Euskara ingurune digitalean	0,3
30	09-11-2021	Euskara ingurune digitalean	0,3
31	02-11-2021	Evaluación políticas públicas: planificación y evaluación de las líneas de subvenciones municipales o forales	0,5
32	03-11-2021	Evaluación previa impacto de género	0,3
33	20-10-2021	Gestión de conflictos: habilidades para la prevención y el afrontamiento	0,3
34	02-11-2021	Gestión de la rehabilitación y regeneración urbana	1,1
35	01-09-2021	Gutuna eta ofizioa	0,3
36	02-11-2021	Hacia un uso igualitario del lenguaje y la comunicación en la administración	0,3
37	21-10-21	Hacienda local. Especial referencia al urbanismo. ZOOM bidez	0,5
38	04-10-2021	Haurren eta nerabeen kontrako sexu abusuak: Oinarriko ikastaroa	0,4

2022ko otsailaren 25a, ostirala

Zk.	Data	Ikastaroa	Puntuazioa
39	04-10-2021	Hezkidetzatza: indarkeriaren prebentziorako eta esku-hartzeko oinarriak	0,9
40	01-09-2021	Hizkera juridikoa	0,5
41	06-10-2021	Igualdad de mujeres y hombres en proyectos	0,4
42	10-11-2021	Inteligencia emocional	0,3
43	06-09-2021	Interoperabilidad en la administración electrónica	0,5
44	19-10-2021	Jendaurrean efikaziaz hitz egitea	0,3
45	04-10-2021	La agenda 2030 y los objetivos de desarrollo sostenible: Una herramienta para mejorar nuestras políticas públicas	0,3
46	02-11-2021	La protección de datos personales en la administración pública de la CAE	0,5
47	01-10-2021	Lenguaje inclusivo	0,3
48	02-11-2021	Licencias y comunicación previa. Diferentes regímenes de intervención	0,5
49	13-09-2021	Masculinidades. Hombres e igualdad: Retos y resistencias	0,4
50	21-09-2021	Metodología 5S digitales. Implantación	0,3
51	02-11-2021	Mezu elektronikoko egokiak idatzi	0,3
52	06-10-2021	Mindfulness	0,3
53	22-09-2021	Mindfulness	0,4
54	02-11-2021	Modalidades de contratos del sector público	0,5
55	14-09-2021	Módulo I. Derecho administrativo básico del XLVII (47) curso de urbanismo y estudios territoriales (2021-2022)	1,3
56	13-10-2021	Módulo II. Normativa sobre ordenación del territorio, legislación sectorial y medio ambiente del XLVII (47) curso de urbanismo y estudios territoriales (2021-2022)	1,4
57	17-11-2021	Módulo III. Ordenación y planeamiento urbanístico del XLVII (47) curso de urbanismo y estudios territoriales (2021-2022). Bilbao	1,45
58	02-11-2021	Módulo III. Curso avanzado sobre la gestión de las subvenciones	0,5
59	02-11-2021	Optimización Oracle 12C con OEM 13C	0,3
60	04-10-2021	Procedimiento administrativo común en la Ley 39-2015	0,5
61	06-09-2021	Procedimiento sancionador	0,5
62	06-10-2021	Propuestas para la mejora del lenguaje administrativo	0,3
63	08-11-2021	Propuestas para la mejora del lenguaje administrativo	0,3
64	04-10-2021	Reglamento general de protección de datos	0,6
65	26-03-2021	Seminario vasco de derecho local	0,5
66	02-11-2021	Testu argiak euskaraz: hitz-ordena eta puntuazioa	0,3
67	22-11-2021	Valoraciones urbanísticas	0,7
68	04-10-2021	Violencia contra las mujeres: curso básico	0,4
69	14-09-2021	XLVII (47) curso de urbanismo y estudios territoriales (2021 - 2022)	2